



## ARTEA ETNOGRAFI ELKARTEAREN KOMUNIKATUA

Informatu nahi dugu arratsalde honetan 19:30etan Artziniega Museoko gida zerbitzua aukeratzeko prozesuan parte hartu duten enpresa ezberdinak aurkeztutako proposamenak ireki ditugula Arabako Foru Aldundiko Museo Zuzendariarekin, Artziniegako Alkatearekin eta Artziniegako Udaleko talde politikoen ordezkariekin.

**Behin gida zerbitzuko enpresa aukeratuta, adierazi nahi dugu bihar, martxoak 9 Artziniega Museoak publikora berriz ere zabalduko dela.**

Baita ere adierazi nahi dugu hurrengo asteartean, martxoaren 12an, Eusko Legebiltzarreko Mahaia Museoan jasoko dugula Bakartxo Tejeria Otermin Lehendakaria buru izanda. Museoko gela batean lan bilera bat egingo dute eta amaitzean Artziniega Museoan bisita gidatua egingo dute.

Eskerrak eman nahi dizkiogu Artziniegako Herriari, Museoa maite duten pertsona orori, Museoa Bizirik herri mugimenduari eta komunikabideei haien interesagatik.

Eskerrik asko!